

Oporretan



Uztaila da. Gure lagunak oporretan daude. Gaur hondartzara joan dira gurasoekin. Gontzalek gaztelu handi bat egin nahi du. Harea eta pala hartu eta txis, txas, txis, txas, gaztelua egiten ari da. Gorka bero da eta uretara joan nahi du.

—Ene! Nolako gaztelua. Oso polita eta handia da —esaten du Gorkak.

—Bazatoz nirekin uretara? —galdetzen dio Gontzali.

—Ongi da, baina gaztelua amaitu nahi dut —erantzuten dio Gontzalek.

—Gero. Orain goazen uretara.

—Beno, baina kontuz ibili behar dugu, e? Uretara doaz eta igeri egiten ari dira.

—Hondartza asko gustatzen zait —esaten du Gorkak.

—Niri ere bai —erantzuten dio Gontzalek. Bitartean, Izaskun eta Janire palaz jolasten ari dira.

Gontzalen aita uretan eskiatzen ari da. Oso arin doa. Gorka eta Gontzal ikusten ari dira.

—Begira! Hontik doa zure aita eta oso arin doa, ezta? —esaten du Gorkak.

—Aita! Aita! Nora zoaz hain arin? —galdetzen du Gontzalek.

Aita despistatu egin da eta nahi gabe erori egin da.

—Ai! Ai! Kontuz! —oihukatzen du. Gontzalen gazteluan jausi da.

—O! Nire gaztelua! Aita, zer egiten ari zara? Gaztelua apurtu duzu!



OPORRETAN

Eman erantzuna galdera hauei:

1.- Nora joan dira gaur gure lagunak?

.....

2.- Norekin joan dira?

.....

3.- Zer egin nahi du Gontzalek?

.....

4.- Eta Gorkak?

.....

5.- Zertan ari dira uretan?

.....

6.- Zerez jolasten ari dira Izaskun eta Janire?

.....

7.- Eta Gontzalen aita?

.....

8.-Nola doa aita?

.....

9.- Zer gertatu zaio aitari?

.....

10.-Non erori da aita?

.....

Oporretan (Hiztegia)

Kioskoa	Merkea
Gaztelua	Garestia
Bainujantzia	Berezia
Eguzkitakoa	Gose
Kuboa	Egarri
Tobogana	
Ederra	
Erdian	
Etzanda	
Paketea	
Tauleta	
Azukrea	
Eskaintza	
Limoia	
Haragia	